

SAN BIZENTE PAUL-EN GOZO-KANTAK.

KANTARTEA.

Beti-betiko zeruban orain
Zauden ezkerro goitua,
Gure-alde zuk, Bizente Paul,
Egiñ erregu-sutua.

KANTALDIAK.

Eguzki-gisa jayo ziñaden
Euskal-erritik urrian,
Eta ikasirik gazte-denboran
Zaragoza-ko urian,
Ordendu ziñan Tolosa-koan
Agertutzeko agirian,
Eta mundu au bizkortutzeko
Karidadezko bizian.

Preso joan ziñan Afrika-raño
Mairu gaistoen artera,
Preso-ekarririk amore-katez
Gizonak Zeru bidera:
Animak dira zure maiteak,
Oyek billatzen ai zera;
Paris, Marsella, Franzi guzian,
Iñun nekatzen etzera.

Danen artean pobre gaiñoak
Dituzu maite-kutunak;
Oyentzako zuk ipiñirikan
Ainbeste daude lagunak;
Karidadeak egiten ditu
Ain errukitsu biguñak;
Zureak diran seme-alabak
Ondo dirade ezagunak.

Karidadeak egiten gaitu
Jaungoikoaren antzeko:
Alkar maitatu bear geradé
Zeru ederrean sartzeko;
Maitakizunik Jainkozko-gabe
Ez dago au ezer artzeko;
Erregu zazu Santu maitia,
Gure biotzak sutzeko.

Jaungoikuaren amorez dira
Pena guztiyak maiteak,
Bekatuaren ordañak, eta
Erbeste ontako loreak:
Guk nai badegu, perlak ditugu
Mundu ontako nekeak,
Apaindutzeko berakiñ gero
Zeruban koroy-obeak.

Karidade au iritsi iguzu,
Bizente Paul Santua,
Biotz-biotzez maita-dezagun
Orain da beti Jainkua;
Bere amorez orobat emen
Maitarik lagun-urkua,
Zure ondora gure anima
Zeruetara bijua.

JOSÉ IGNACIO DE ARANA.